

GAZTERIA


URTEKO PLANA

2019


1. LORTU BEHARREKO HELBURUAK

2. EKINTZAK

3. AURREKONTUA



1. LORTU BEHARREKO HELBURUAK



1.1.- Hezkuntza eta prestakuntza

1.1.1.- Lanbidea-prestakuntza.

1.1.1.1.-Hezkuntzan dauden bide zein baliabide ezberdinen informazioa eskaintzea.

1.1.1.2.-Prestakuntzaren esparruaren eta lan merkatuaren arteko uztardura sendotzeko erraztasunak ematea, jasotako prestakuntzaren eta enplegu aukeren arteko egokitzapena handiagoa izan dadin, gainera, mutilen eta nesken artean laneratzeko baldintzak eta sarbideak parekatuta.

1.1.1.3.-Arrisku egoeran eta ahultasun sozialeko egoeran dauden gazteek lanerako prestakuntza eskueran izatea sustatzea

1.1.2.-Gaitasunei buruzko prestakuntza.

1.1.2.1.-Etengabeko ikaskuntzari lotutako balio eta jarrerren garapena bultzatzea eta horiek bizitzan barnako orientazio eta prestakuntzarekin uztartzeko moduak sustatzea.

1.1.3.-Bikaintasuna eta talentua.

2.1.3.1.-Ikerketarako interesa piztea.

1.2.- Esku hartze soziala

1.2.1.- Inklusioa.

1.1.1.1.-Herrian dauden gazte guztiak, herritar sentitu daitezen bultzatu.

1.1.1.2.-Herrira datozen, etorkin gazte desberdinen inklusioa sustatu.

1.1.1.3.-Herritar gazte denak gizartearen parte izan daitezen bultzatu, herrian egiten diren ekintza desberdinetan partaide izan daitezen.

1.2.2.-Familia.

1.2.2.1.-Gazteek aurki ditzaketen familia eredu desberdinei buruzko informazioa eskuragarri izan.

1.2.2.2.-Familia bat sortzerako orduan gazteek izan ditzaketen laguntza desberdinez ohartarazi.

1.2.2.3.-Familia giroan Berdintasuna sustatu.

1.2.3.-Bizitegi-emantzipazioa

1.2.3.1.-Etxebizitza eskuragarriago egitea batik bat zailtasun ekonomikoak dituzten gazteentzat, batez ere alokairua sustatuta.

1.2.3.2.-Etxebizitza eskuratzeko neurri publikoen eskaintzari buruzko informazioa eta orientazioa ematea gazteei.

1.2.3.3.-Emantzipatu nahi duten gazteen premiei eraikuntza ezaugarriak eta araubide ekonomikoa direla eta bereziki egokitzen zaizkien alokairu babestuko etxebizitzaren eraikuntza bultzatzea.

1.3.- Kompromiso soziala

1.3.1.- Elkartegintza eta boluntariotza.

1.3.1.1.-Herrian dauden elkarte eta boluntariotza bide desberdinen berri ematea.

1.3.1.2.-Gazteek parte hartzen duten eta herrian dauden elkarte desberdinek sustatzen dituzten programak bultzatu eta hauetan parte hartu.

1.3.1.3.-Boluntariotza programa desberdinak bultzatu.

1.3.2.-Ingurumena.

1.3.2.1.-Kontsumo arduratsua bultzatuz hondakinen sorkuntzaren prebentzioa bultzatzea eta hondakinen kudeaketa egokia bideratzea.

1.3.2.2.-Mendian erabiltzen diren garraio desberdinek, motorrek, ingurumenean duten eraginaren prebentzioa bultzatzea eta kudeaketa egokia bideratzea

1.3.2.3.-Gazteen mugikortasun premiei egokitzen zaien garraio publikoaren sarea bultzatzea eta sare hori erabiltzeko sentsibilizazio lanak egitea.

1.3.3.-Berdintasuna.

1.3.3.1.-Gazteen artean genero indarkeriaren prebentzioan eta ezabaketan aurreratzen lagunduko duten ekintzak garatzea.

1.3.4.-Aniztasuna.

1.3.4.1.-Gazteen bazterkeriaren inguruko prebentzioa eta gizarte esku-hartzea, aniztasuna eta gizonen eta emakumeen arteko aldeei erreparatuta

1.4.- Osasuna eta ongizatea

1.4.1 Bzitzia osasuntsuko azturak.

- Gazteen artean bizimodu eta jokaera osasungarriak sustatzea, norbera zaintzea eta besteak zaintzea bultzatuta.
- Gazteen osasunerako onuragarriak izan daitezkeen kirol jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak garatzea.
- Gazteen osasunaren aldeko eskuhartzeen koordinazioa sustatzea.

1.4.2 Adikzioen eta jokabide arriskutsuen prebentzioa.

- Gazteei ondasun eta zerbitzuen kontsumitzaile gisa dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea.
- Ingurumen aldetik iraunkorra den kontsumoa gazteen artean aurreratzen lagunduko duten ekintzak garatzea.
- Jokoan modu arduratsuan aritzeko jabetasuna sustatzea gazteengan.
- Gazteengan kontsumo arrazional eta arduratsuen garrantziari buruzko sentsibilizazio lanak burutzea, azturak eta jarrerak aldatzetik abiatuta.

1.5.- Kultura eta sormena

1.5.1 Nortasuna.

- Gazteen kultura jarduera bere fase anitzetan sustatu eta laguntzea.
- Kultura jardueren eskaintzan euskararen erabilera bultzatzea.
- Kulturaren eta ingurumenean oinarritutako turismoa sustatzea gazteen artean, mugikortasun geografikoa erraztuko duten zerbitzuak eskainita

1.5.2 Sormen kulturala

- Gazteentzako kultura eskaintza indartzea eta Euskadi artista gazteentzako erakarpenerako gune kultural gisa sustatzea.

2. EKINTZAK

2.1. GAZTE INFORMAZIOA

2.2. GAZTEENTZAKO ETA BERAEGIN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

2.3. SEXUALIDADEA: AHOLKULARITZA ZERBITZUA

2.4. GAZTEENTZAKO ESPAZIO LUDIKOAK

2.5. "MUGIMENT" PROIEKTUA

2.6. BOLUNTARIOTZA

2.7. AISIA

2.8. PARTAIDETZA KULTURAN

2.1. GAZTE INFORMAZIOA

Bediako gazteek honako gaietan izango dute aholkularitza:

- Hezkuntza eta formakuntza.
- Hezkuntza orientazioa.
- Etxebizitza.
- Osasuna.
- Kirola.
- Ingurugiroa.
- Garraioa.
- Bidaiak eta ibilbideak.
- Gizarte gaiak.
- Boluntarioritza.
- Sexologia.

Hau dena bideratzeko, eta beraiek dituzten zalantzak argitzeko, honako zerbitzuak izango dituzte:

- Udaleko telefono mugikor bat : 636325578
- E-posta elektronikoa bat: liburutegi@bedia.biz

2.2. GAZTEENTZAKO ETA BERAIEIN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

Gai desberdinetan eskainiko da laguntza, horien artean:

- Arrisku jokaerak.
- Kontrolik gabeko ordutegiak.
- Bullyng.
- Frustrazioa.
- Eskola arazoak edo zailtasunak.
- Autoestimu baxua.
- Muga edo limite eza.
- Lotsa.
- Lehia pertsonalk.
- Drogen erabilera gatazkatsua.
- Teknologien erabilera .

Hau dena bideratzeko, eta beraiek dituzten zalantzak argitzeko, honako zerbitzuak izango dituzte:

- Udaleko telefono mugikor bat : 636325578
- E-posta elektronikoa bat: liburutegi@bedia.biz

2.3 SEXUALIDADEA: AHOLKULARITZA ZERBITZUA

- Martiaren 4tik aurrera sexologia zerbitzu hau eukiko dozue eskuragarri. Sexuaren edo sexualidadearen gainean zalantzak edo kuriosidadea daukien Bediako gazteei zuzendutako zerbitzua da.
- Sexologiako profesionalen zerbitzuak eskaerei arreta emon eta sexualidadeari buruzko informazioa emongo dau.
- Zelan?
 - Online aholkularitzea, email honetan: **sexologia@bedia.biz**
 - Eta beharrezkoa izatekotan, aurrez aurreko arreta.

2.4 GAZTEENTZAKO ESPAZIO LUDIKOAK

- Zezeiletik aurrera, frontoia asteburuetan zabalik.
- Ping-pong mahaia eta xakea kanpoaldean, bagiletik aurrera.
- Gazte Txokoa astegoienetan zabalik.

2.5 "MUGIMENT" PROIEKTUA

- Irailaren 1etik aurrera bediako udala eusko jaurlaritzak sustatutako "mugiment" proiektuaren parte izango da
- Helburu nagusia euskal gizarte aktiboa lortzea da, jarduera fisikoa sustatzera eta sedentarismoa murriztera bideratutako ekintzak sustatzen dituana, aktiboak ez diran personak aktibo izaten hasteko neurriei lehentasuna emonez.
- "Mugiment Bediaren" proiektu globala Bediako iraileko agendan azalduko da zehatz-mehatz. Bediako gazteek aukera eukiko dabe astean behin, dohainik, Bediako gazte gehiagogaz monitore batek gidatutako kirol saio bat egiteko.
- Eguna: astelehenetan, 20:00etatik 21:00etara.
- Egin beharreko jarduera: beroketa ariketak, ibili eta korrika egin, luzaketak, baita indar ariketak be.

2.6. BOLUNTARIOTZA

2019. Urtean bi programa jarriko dira martxan, Bedian bertan Jandoniz nagusien egoitzarekin batera:

- **Sormening programa:** Gazte eta nagusien arteko elkartukrea residentzia. Orain arte egiten ibili garen moduan, urtean zehar 4 saio egingo ditugu, zeinetan gazteak, nagusiekin batera tailer desberdinak egingo dituzten.
- **Elkartruke generazionala:** Programa hau aurten jarriko da martxan. Jandonizen bizi diren nagusien behar izanen diagnostiko bat egin ondoren, Gazte Txokoan apuntatzen diren gazteekin batera, eskaintzaren arabera, bikoteka hilean behin gazte hauek konpromesua hartuko dute beraien antzeko gustuak dituen nagusi batekin aisiaz disfrutazteko, (Telebista ikusi, atleticken partidua ikusi, kartetara jolastu...). Eta alderantzi. Nagusiek gazteei jostente, korapiloak egiten... erakutzko diete trukean. Momentu honetan residente diren nagusien artean, 8 dira programa hoentan parte hartzeko prest daudenak. Hauek dira hauek dituzten bete beharrak:
 - Futbol partiduak ikusi.
 - Partxisera jolastu.
 - Kartetara jolastu
 - Paseoan irten eta ibili.
 - Taldean kirola egin.
- **Boluntariotza, Bilboko jantoki sozialean.:**

Jantoki sozialak behar egoeran dagozan personei janaria dohainik emoteko erakunde publikoak dira. Bediako gazteek esperientzia hau probetako aukerea eukiko dabe abenduaren 15ean, 12:00etatik 16:30era.

2.7. AISIA

Gazteentzako aisia oso garrantzitsua da, hori dela eta, honako ekintzak eramango ditugu aurrera urtean zehar, auek bere aisi libreaz goza dezaten:

- Alto campoo eta Baqueirara eski urteerak
- Mendexa park abenturara urteera
- Asturiasera urteera, Sella ibaiko jaitsierea egiteko.
- Uda gaztea
- Oñatiko haitzuloetara urteerea, espeleologia egiteko.

2.8. PARTAIDETZA KULTURAN

- **APIRILA**

Sormening, Onditz Mendizabalegaz.

Gaia: Korrika...badator.

Aurten, Bediako gazteek Bediako Udalaren kultur jarduera batzuetan parte hartu eta borondatezko lanak egingo ditue. Lehenengo jarduera korrika txiki eta korrika egunean izango da. Horretarako, martiaren 7an, 17:00etatik 19:00etara sormening dinamizauko da Gazte Txokoan, korrika txikian eta korrikan erabiliko doguzan pankartak prestetako.

- **BAGILA**

Sormening, Onditz Mendizabalegaz.

Gaia: Bediako Jaiak.

Jardunaldi honetan, txikiakaz egin beharreko jolas eta tailerrak prestauko doguz, Bediako jaietako haurren egunerako.

Bagilaren 9an, 17:00etatik 19:00etara.

2.8. PARTAIDETZA KULTURAN

- **URRIA**

Sormening, Onditz Mendizabalegaz.

Gaia: Beldur Barik lehiaketea.

Eguna: urriaren 27an, 17:00etatik 19:00etara.

- **ZEMENDIA**

Sormening, Onditz Mendizabalegaz.


Eguna: zemendiaren 10ean, 17:00etatik 19:00etara.

Lehiaketan entregau beharreko Beldur Barik proiektua amaitzeko.

3. AURREKONTUA

3.1. ESTRUCTURA

3.2. EKINTZEN AURREKONTUA



3.1. ESTRUCTURA

Kontzeptuak	Gastuen aurrekontua	Behin betiko gastua
Pertsonalaren gastuak	10.164 €	10.164 €

3.2. EKINTZEN AURREKONTUA

		Aurrekontua
1. ESTRUKTURA (LAGUNTZA ZERBITZUA, GAZTE INFORMAZIOA, GAZTE TXOKO ETA AISIKO BEGIRALE BARNE)		10.164 €
2. EKINTZAK	GAZTE INFORMAZIOA	0 €
	GAZTEENTZAKO ETA BERAEGIN FAMILIENTZAKO LAGUNTZA	0 €
	SEXUALIDADE:AHOLKULARITZA ZERBITZUA	300 €
	GAZTEENTZAKO ESPAZIO LUDIKOAK	4.000 €
	"MUGIMENT" PROIEKTUA	1.000 €
	BOLUNTARIOTZA	800 €
	AISIA	600 €
	PARTAIDETZA KULTURAN	700 €
GUZTIRA		17.564 €